

ERREPARATU

Plastikozko eserleku lerrokatuetako batean
eserita dagoen langileak,
betazal astunak
eta begirada nekatua.

Egunak menderaturikoa,
pentsamenduei astirik eman gabe
lo hartzeko zorian.

Lanak deseginda,
txanponaren izenean.

Deigarria gertatzen da
isiltasunaren kolorea,
motorraren burrunba soilik
nagusi denean.

Iluntzeko autobusa gelditu egin da:
baldar jaitsi,
eta kale estu batean ezkutatu da.

Eserleku hutsa:
babesgabeko askoren
lekuko
errutinazkoa.

Josu Baez

USTEKABEAN

Ustekabean nentxekion izateari.

Ustekabean topatu zintudan.

Ustekabean tximistak
lehertu du zuhaitza.

Ustekabean –hala ote– giza amorruek
nere erraietan tatuatu du
negar malkoen irudi mingotsa.

Ustekabean pozaren ostarreak.
Iraute motzeko abaguneak.

Ustekabean ezustekak.

Pozik nerakuske
zori iraunkorra,
ustekabean harrapatu nauzu.

Ustekabean nere irudizko haserrea.

Ustekabean nentzuen zure ahotsa.

Itsatsita nauzu oraindik,
berean dirau zilbor esteak.

Ustekabean noakio –noizbait– bizitzari.

Josu Baez

SINFONIA

Kontenplazioaren hegalpetik
arnasa bihurtu zen unibertsoa.
Eta mistikaren usainak
materiaren espiritua
gorpuztu zuen.

Ez da ametsa,
sinfonia handi bateko
oihartzunaren printza baizik.

Izanaren kutsua
izango dugu betirako
unibertso zabal hau hobetzarren.

Josu Baez

LEIZE ZULOA

Leize zuloa,
han zintzilik
gauaren iluna.
Leize zuloa,
urte beltzen gordelekua.

Harrokeriaren elastikoa
hegaldi biribilean
beherantz doa,
sortutako negarrak
xurgatu nahi balitu bezala.

Leize zuloaren sakontasunean,
zurikeria,
ergelkeria,
ilunpearen eta gezurraren aztarnak
pausatzen dira.

Amalgama hotza.

Gero,
ezkutuko errekek
eramango du guztia.

Sabaitik lurrin zuria ageri da.

Josu Baez